PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Erakundea: GIPUZKOA ZAINDUZ, SA
Programa: 010 - GIPUZKOA ZAINDUZ SA

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztutako jarduera estrategikoak garatzeko beharrezkoak diren baliabideen eta azpiegituren eraikuntza eta egokitzapena sustatzea da Gipuzkoa Zainduz SAren xedea; Gipuzkoako Lurralde Historikoaren beharrei eraginkortasunez erantzutea eta haren jarduera-eredua indartzea ahalbidetuko duten lankidetza-ereduak artikulatuz, gizarte-babesaren eremuan eskariari erantzuteko esku-hartzeak lehenetsiz, epe luzera irtenbide iraunkorrak bermatzeko berrikuntza eta aliantza estrategikoak uztartzen dituen ikuspegiarekin.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako Lurralde Historikoak tresna bat behar du, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztutako jarduera estrategikoak garatzeko beharrezkoak diren baliabideen eta azpiegituren eraikuntza eta egokitzapena bultzatzeko ohiko formulak nahikoak ez diren eta interes soziala dagoen esparruetan.
Premia hori bereziki garrantzitsua da gizarte-babesaren eremuan; izan ere, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuen erabiltzaile diren edo zerbitzu horien beharra duten pertsonen arreta eta zaintza hobetzen jarraitzea, baliabide eta azpiegitura gehiago eskainiz. Plaza-eskaeraren etengabeko hazkundeak itxaron-zerrendak areagotzen ditu, bereziki mendetasun-egoeran dauden adinekoen kasuan, beste arreta-esparru batzuetan sor daitezkeen beharrak gutxietsi gabe. Horri gehitu behar zaio Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapan aurreikusitako eskariaren hazkundea, datozen urteetan mendetasunak izango duen bilakaeraren ondorioz. Mapa horren arabera, 2030a baino lehen Gipuzkoak adinekoentzako egoitza-zentroetan 757 plaza berri beharko ditu, egungo estaldura-mailari eutsi ahal izateko.
Egoera horren aurrean, beharrezkoa da eredu berrietarantz aurrera egitea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan azpiegitura estrategikoen premiari modu eraginkorrean erantzuteko. Testuinguru horretan, lankidetza publiko-pribatua planteatzen da irtenbide berritzaile eta iraunkorrak sustatzeko bide egoki gisa.

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoa Zainduz SA, 2025eko urrian eratutako foru-sozietate publikoa izanik, eta 2026an lehen urratsak eman ondoren, 2027an Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurralde-eredua garatzeko estrategikotzat jotzen diren baliabideak eta azpiegiturak eraikitzea edo/eta egokitzea sustatuko duten sozietate mistoak sortzeari ekingo dio. Horrenbestez, 2027ko aurrekontua sozietatearen beraren egitura eta funtzionamendu-oinarriak sendotzera bideratuta egongo da, baita bere jarduera-planean aurreikusitako jarduketetan aurrera egiten jarraitzera ere.

Nori zuzendua:

Oro har, Gipuzkoako lurraldeko jarduera-eredua garatzeko estrategikotzat jotzen diren baliabideen eta azpiegituren eraikuntzan edo egokitzapenean lankidetzan aritzeko interesa duen edozein erakunderi zuzenduta dago; eta, bereziki, instituzioei eta irabazi-asmorik gabeko Hirugarren Sektore Sozialari.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentutik datozen baliabideak eta beste baliabide finantzario batzuk.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Finantza-inbertsioak. Akzioak eta partaidetzak eskuratzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Enpresa mistoak sortzen laguntzea.

Programaren arau esparrua:

o 16/2025 Foru Dekretua, urriaren 21ekoa, «Gipuzkoa Zainduz SA» foru-sozietate publikoa sortzen duena.
o 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa, kontrol ekonomikoari buruzkoa.
o 91/1993 Foru Dekretua, azaroaren 3koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko administrazioan foru-sozietate publikoak sortzeko behar den dokumentazio orokorraren edukia ezartzen duena.
o Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena, estatu mailakoa eta testuinguru horretan aplikatzekoa.
o Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legea.
o 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa foru gobernantza publikoaren esparruan
o 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
o 185/20215 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
o 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarena.

ENTITATEAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Zentroen eta azpiegituren eraikuntza eta/edo egokitzapena bultzatzea, gizarte-babesaren eremua lehenetsiz

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erakunde mistoetan finantza-inbertsioak egitea	Bai/Ez	=	Ez	Bai	Bai	Bai

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Finantza-inbertsioak. Akzioak eta partaidetzak eskuratzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**14.493.573,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Finantza-inbertsioak. Akzioak eta partaidetzak eskuratzea	14.493.573,00			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Zainketa egokiak jasotzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Sozietate mistoak eratzeko deialdietan positiboki baloratzen dira genero-ikuspegia txertatzen duten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera bideratutako neurri zehatzak aurreikusten dituzten proiektuak.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Gizarte-arreta behar duten edo gizarte-zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonen, bereziki mendekotasun-egoeran dauden adinekoen, arreta eta zaintza hobetzeko baliabide eta azpiegiturak sortzea eta egokitzea bultzatzen den heinean, programa honek 2030 Agendaren helburuak lortzen laguntzen du. Zehazki, 3. GJHrekin bat dator «Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea», eta, bereziki, osasun-estaldura unibertsalerantz aurrera egitearekin eta kalitatezko funtsezko zerbitzuetarako sarbidea erraztearekin.

Kuantifikazioa: 14.493.573,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	3-Osasun eta ongizatea Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.	**14.493.573,00**	
Helburua	- Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa barne, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoak eskuratzeko aukera barne	14.493.573,00	
	Ekintza lerroak		
	Finantza-inbertsioak. Akzioak eta partaidetzak eskuratzea	14.493.573,00	
Guztira		**14.493.573,00**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	103.428,00	108.623,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	381.656,00	369.950,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**485.084,00**	**478.573,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	1.600,00	15.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**1.600,00**	**15.000,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	7.498.400,00	14.000.000,00					
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	**7.498.400,00**	**14.000.000,00**					
Guztira / Total	**7.985.084,00**	**14.493.573,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL		108.623,00				108.623,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		369.950,00				369.950,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		**478.573,00**				**478.573,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES		15.000,00				15.000,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		**15.000,00**				**15.000,00**
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS		14.000.000,00				14.000.000,00
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras		**14.000.000,00**				**14.000.000,00**
Guztira / Total		**14.493.573,00**				**14.493.573,00**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2026	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	375.084,00	343.573,00	
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES	110.000,00	150.000,00	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**485.084,00**	**493.573,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	7.500.000,00	14.000.000,00	
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	**7.500.000,00**	**14.000.000,00**	
Guztira / Total	**7.985.084,00**	**14.493.573,00**	